



kultura zerbitzua

Gehien bat material birziklatuekin egindako gabonetako apaingarrien auzo eta elizateen arteko lehiaketa

Eskoriatza 2022

Eskoriatzako Udalak gehien bat birziklatutako materialekin egindako gabonetako apaingarrien lehiaketa antolatu du, auzo eta elizateen artekoa, eta horrekin jendea gonbidatu nahi du Gabon jaietz modu arduratsuan, parte-hartzailean eta ingurumena errespetatuz goatzera.

OINARRIAK

1.- Helburua

Lehiaketa honen helburua da gehien bat botatzeko diren hondakinak erabilia, horiei erabilpen berri bat emanda, Gabonetako apaingarriak egitea, eta horiekin espazio publikoak apaintzea.

Kontzientzia hartzea nahi da egunero sortzen dugun hondakin kopuruaz eta horrek sortzen duen ingurumen arazoaz, eta horrekin batera, beharrezko ez diren kontsumoak saihestea duen balioaz jabetzea eta ohiko apaingarriak erabili beharrean egon daitezkeen alternatibak bilatzea.

Lehiaketa auzo eta elizateen artekoa izango da, eta familian, eskapeko edo auzoko bizilagunekin lan egiteko aukera ere bada.

2.- Parte-hartzaileak

Lorategia, zuhaitzak, espazio publikoa, auzoa edo antzekoa apainduz parte hartu nahi duten auzotarrak, auzo edo elizateen izenean.

Parte hartzeko, korreo bat bidali beharko da, abenduaren 16a baino lehen, kultura@eskoriatza.eus honako datuekin: arduradunaren izen-abizenak, apainduko den auzoa edo espazioa, eta horren argazkia.

Antolatzaileen oniritzia jasotakoan apaindu ahal izango da hautatutako gunea.

3.- Teknika

Teknika librea izango da. Gabonetako objektu (gabonetako bolak, faroltxoak, kateak, lanparak, gabonetako zuhaitzak...) bihur daitezkeen edozein hondakin erabili ahal izango da (plastikozko botilak, cd-ak, abatz-estalkiak, laten eraztunak, latak, tetrabrikak, bizikleta gurpilak, kable tutuak, telak, kortxoa, beira, egurra...). Apaingarriei argiak ere jarri ahal izango zaizkie nahi izanez gero.

Oso garrantzitsua da erabiltzen diren materialak kanpoan jartzeko egokiak izatea eta ongi lotuta edo estrategikoki jarrita egotea, eguraldi txarrari aurre egin eta ingurua ez zikintzeko



4.- Balorazio irizpideak

Ondorengo alderdiak hartuko dira kontuan: sormena, materialak eraldatzeko erabilitako teknika, ahalik eta erositako material gutxien erabiltzea, erabilitako materialak, diseinua, zailtasuna, berrerabilitako materialen aprobetxamendua.

5.- Sariak

Sariak dirutan emango dira

- Sari bakarra: 300 euro.
- Gainerako parte-hartzaileek 100 euroko accesita jasoko dute, baldin eta epaimahaiaren us-
tez dekorazioak horretarako behar besteko kalitatea bada eta oinarri hauetara egokitzen
bada.

6.- Apaingarriak jartzeko egunak

Apaingarriak jarrita egon beharko dira abenduaren 23ko eguerdiko 14:00rako.

7.- Apaingarriak noiz kendu

Apaingarriak gabonetan egongo dira ikusgai, eta 2023ko urtarrilaren 6tik aurrera kendu beharko dira eta urtarrilaren 8rako kenduta egon beharko dira, eta zaborrera bota behar baldin badira, behar den moduan birziklatu beharko dira.

8.- Epaimahaiaren erabakia

Epaimahaiak abenduaren 23an baloratuko ditu lanak, eta sariak o abenduaren 24an jakinaraziko dira.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta bera izango da edozein gertaera edo egin dakioken ohar erabakitzeke organo eskuduna.

9.- Baldintza orokorrak

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarrietan jasotako baldintza guzti-guztiak ezagutzea eta onartzea.

Epaimahaiak ahalmena izango du oinarrietan aurreikusi ez diren kasuak erabakitzeke, bai eta sariren bat eman gabe uzteke ere.

